

## BALIO PROPOSAMENA

Noizbait gertatu al zaizu, zuk ikusitako koloreak ez datoztela bat jendeak esaten dutenekin? Eta, noizbait bururatu zaizu koloreak bereizteko arazoren bat duzunik? Ziuraski nekatuta egongo zara arropa dendetan, behin eta berriro saltzaileari jantziak zein kolorekoak diren galdetzen egoteaz. Eta, ez hori bakarrik, zer sentiarazten dizu elektrizista izatea nahi, eta zure arazoagatik ezin izatea? Oso egoera deserosoa eta injustua da koloreak desberdintzen ez jakiteak, ezta? Gure DaltoApp aplikazioarekin arazo hauetaz betirako ahaztuko zara.

Izenak esaten duen bezala, daltoniko eta koloreak bereizteko arazoak dituztenentzat zuzenduta dagoen aplikazioa da. Hori dela eta, DaltoApp programatuta dago ondorengo funtzioak betetzeko:

- Aplikazio honen helburua argazki baten bidez koloreak esatea da. Janzterako orduan, esaterako, jertseari argazki bat ateratzean zein kolore edo kolorek osatzen duten adieraziko du. Edo elektrizisten kasuan, esaterako, kableei argazkia ateratzean, zein kolorekoak diren adieraziko du, (baita margolariak ere, adibidez) eta, ondorioz, arazoak izateko probabilitateak oso murriztuak izango dira.
- DaltoApp-en bitartez, gaian espezialitatuta dauden aditu eta profesionalekin harremanetan egoteko aukera izango duzu, bideoen bidez edo elkarrizketen bidez, adibidez.
- Aplikazioak, koloreak esateaz gain, mezu positiboak emango dizkie arazoa onartzen zaila egiten zaienei. Mezuak txertatzea erabaki dugu pertsona hauek oso egoera deserosoen aurrean egoten direla badakigulako, eta honekin, animatzea eta gaixotasuna ahalik eta ikuspuntu positiboenetik ikustea gustatuko litzaiguke.

Izan ere, DaltoApp-en erabilera ez dauka zailtasunik, ondorioz edonork erabiltzeko aukera du. Gainera, eroso sentitzen zaren hizkuntzarekin erabil dezakezu, aplikazio honek 50 hizkuntza eskaintzen baititu. Eta ez hori bakarrik, oso erraza da eskuratzen; bai Apple-en (App Store) eta bai Android-en (Play Store) eskura daiteke.

Amaitzeko, DaltoApp-ek bere logoa izango du;



# DALTO-APP EREDUA

Edozein asteazken batean, goizeko 08:00etan.



